

## **Foru Aldundiak 2,3 milioi euroko laguntzak aurreratuko dizkio garraio sektoreari**

**Gasteiz, 2022ko maiatzaren 24a.** Arabako Foru Aldundiak 2,3 milioi euroko dirulaguntzak aurreratuko dizkie datozen egunetan garraio sektoreko Arabako enpresei eta profesional autonomoei, Espainiako Gobernuak erregaien prezioaren igoeraren eragina arintzeko onetsitako programaren esparruan.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur eman die oniritzia 916 laguntza eskaerari (2.319.850 euro), eta aurreikusten denaren arabera, datozen egunetan hasiko dira ordainketak egiten. Horrela, bada, 139.800 euroko balioa duten 9 eskaera izapidetzeko prozesua amaitzeke dago, eta, beraz, sektorearen esku jarriko diren baliabideen guztizko zenbatekoa ia 2,5 milioi eurokoa izango da.

Espainiako Gobernuak garraio sektoreari laguntzeko neurri sorta bat onetsi zuen joan den apirilean, erregaien prezioaren igoeraren eragina arintzeko. Neurri horien artean daude autonomo eta enpresentzako zuzeneko laguntzak. Foru Aldundiak izapidetu ditu eskaerak, Arabako onuradunei laguntza horiek aurreratuko dizkie, eta aurrerago jasoko du Estatuaren kasuan kasuko konpentsazioa.

Laguntza horiek pertsonen eta salgaien garraioaren sektoreko profesional autonomoentzat eta enpresa pribatuentzat dira (taxilariak, gidariarekin alokatzeko ibilgailuen titularrak, autobusen bidez bidaiariak garraiatzeko enpresak, anbulantziak, eta salgaiak garraiatzeko autonomoak eta enpresak).

Laguntzen zenbatekoa profesional edo enpresa onuradunak ustiatutako ibilgailu motaren eta kopuruaren arabera izango da.

Kamioi bakoitzeko laguntza 1.250 eurokoa da, furgoneta bakoitzeko laguntza 500 eurokoa, autobus bakoitzeko laguntza 950 eurokoa, taxi eta VTC bakoitzeko laguntza 300 eurokoa, eta anbulantzia bakoitzeko laguntza 500 eurokoa.

## **Arabak, Bizkaiak eta Garraio Ministerioak AP-68 autobidearen emakidaren kontratu batasunari eutsiko diote**

*2026. urtearen amaieran iraungiko da*

Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak AP-68 autobidearen emakida kontratuaren batasunari eutsiko diote 2026ko azarora arte, orduan amaituko baita, eta hitzarmena sinatuko dute bide azkar horren kudeaketan bidearen titular diren administrazioen arteko lankidetzara arautzeko.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du Araba eta Bizkaitik igarotzen den AP-68 autobidearen zatiaren gaineko eskumenak arautu eta koordinatzeko hitzarmena sinatzea, eta, era berean, ontzat eman du hitzarmen hori berresteko foru arau proiektua. Proiektu hori Arabako Batzar Nagusien osoko bilkurara eramango da, eztabaida eta onets dezaten.

Espainiako Gobernuak 2019an transferitu zion Euskal Autonomia Erkidegoari AP-68 autobidearen (Bilbo-Zaragoza) 77,6 kilometroko tartearen titulartasuna, erkidegotik igarotzen den zatiarena, hain zuzen; zehazki, 55,2 kilometro Arabako Lurralde Historikoan egiten ditu eta 22,4 kilometro Bizkaiko Lurralde Historikoan. Dagozkion eginkizunak eta zerbitzuak ere eskualdatu zizkion.

2019an bertan, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Lurralde Historikoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordeak hala erabakita, Arabako Foru Aldundiari transferitu zitzaion autobidearen Arabako zatia.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak eta Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek osatutako batzorde teknikoak emakida kontratua kudeatzeko formularik onena aztertu du hura bukatu arteko aldirako, eta lehentasuna izango da baliabide publikoak eta bitarteko eta zerbitzu guztiak modu eraginkorragoan eta efizienteagoan kudeatzea.

Batzorde horrek emakidaren kontratu batasunari eustea proposatu du, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsitako hitzarmena sinatzea, errepidearen hiru administrazio titularren arteko lankidetzara arautzeko, kontratua amaitu arte. Jarraipen eta kontrol batzorde bat, hiru aldeek osatua, arduratuko da hitzarmena garatzeaz eta betearazteaz.

## **Foru Aldundiak enplegu publikoaren eskaintza berezia onetsi du 424 plaza egonkortzeko**

*251 plaza GOFEn, 172 plaza Administrazio Orokorrean eta plaza 1 Arabako Suhiltzaileetan*

Foru Gobernu Kontseiluak enplegu publikoaren eskaintza berezi bana onetsi du gaur aldi baterako 424 plaza egonkortzeko: 251 plaza Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean (GOFE), 172 plaza Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean eta plaza 1 Arabako Foru Suhiltzaileak foru erakundean. Plaza horietako gehienak (370) lehiaketa bidez beteko dira, eta gainerakoak (54) oposizio-lehiaketa bidez.

Hiru enplegu eskaintza horiek Sektore publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorio dira, eta helburua da administrazio publikoetako egiturazko plazen aldi baterako estaldura tasa ehuneko zortzitik behera jaitea.

Enplegu publikoa egonkortzeko 2022ko lehen eskaintzak 251 plaza egonkortuko ditu GOFEn: plaza horietako 233 lehiaketa bidez esleituko dira, aipatutako legearen 6. eta 8. xedapen gehigarriak aplikatuz (gutxienez 2016ko urtarrilaren 1etik etenik gabe bitarteko langileek okupatutako lanpostuak eta data horretatik aurrera bitarteko kontratuak dituzten langileek okupatutako plazak), eta gainerako 18 plazak oposizio-lehiaketa bidez esleituko dira, arau beraren 2. artikulua araberaren arabera (gutxienez 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen bitarteko langileek okupatutako plazak).

Enplegu publikoa egonkortzeko bigarren eskaintzaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 172 plaza egonkortuko dira. Plaza horietako 137 lehiaketa bidez beteko dira, eta 35 oposizio-lehiaketa bidez, aurreko kasuan bezala, Sektore publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarriek eta 2. artikulua, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.

Azkenik, hirugarren eskaintzan, Arabako Suhiltzaileak foru erakundeko plaza bat egonkortuko da, eta oposizio-lehiaketa bidez beteko da.

Enplegu publikoaren eskaintza horiek foru langileen ordezkariekin batera hainbat hilabetetan egindako lan prozesuaren ondoren antolatu dira. Urtea amaitu baino lehen argitaratuko dira eskaintzen oinarriak.

## **Foru Aldundiak 634.000 euro inbertituko ditu Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko**

*Zeharbideetan eta istripu ugariko errepide tartetan esku hartuko du*

Arabako Foru Aldundiak 634.000 euro inbertituko ditu Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko. Esku hartzeko programa horrek lehentasuna emango die hiri zeharbideei eta istripu ugariko errepide tarteei.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du bide segurtasuneko prebentzio eta arintze neurrien kontratuaren lizitazioa (633.556 euro), zeina esku hartze horien oinarria baita. Bederatzi hilabete izango dira lanak gauzatzeko. Esku hartzeak aurtengo bigarren seihilekoan eta 2023ko lehen hilabeteetan gauzatuko dituzte.

Programa horren kontura finantzatutako proiektuek abiapuntutzat dituzte udalek, administrazio batzarrek eta herritarrek egindako proposamenak, foru erakundeko bide segurtasuneko teknikarien txostenak eta Errepideen Foru Sarean 2017. eta 2021. urteen artean izandako istripu tasaren azterlanaren ondorioak.

Kontratu horren bidez, Foru Aldundiak jarduketak egingo ditu Arabako hainbat herritako zeharbideetan eta hiri barruko bide tartetan, ibilgailuen abiadura murrizteko. Jarduketan helburua seinaleztapen horizontala eta bertikala indartzea eta trafikoa lasaitzeko neurriak hartzea izango da, kasuan-kasuan.

Horrez gain, besteak beste, euspen sistema narriatuak ordeztuko dituzte; motorzaleentzat egokitutako hesi berriak jarriko dituzte arriskuko zonetan, eta tarte jakin batzuetan txirrindulariak ibili daitezkeela adierazteko seinale gehiago jarriko dituzte.

Esku hartzeko programak kontuan hartuko ditu, halaber, Foru Aldundiak aldizka Arabako errepideetako istripuez egiten duen azterlanaren ondorioak. Azterlan horrek istripu ugariko bide tartek zehazten ditu, eta haietan segurtasuna hobetzeko ekintzak planteatzen. Horiek ere kontratuaren bidez finantzatuko dira.

Azkenik, fauna seinale bereziak ipiniko dituzte ehiza espezieekin istripu ugari izaten diren bide tartetan, eta fauna uxatu eta erakartzen duten produktuak erabiliko dituzte animaliak gurutzagune seguruetara bideratzeko (fauna pasabideak), eta horrela, ez daitezen oraingo gurutzaguneetan errepidera sartu.

## **Foru Aldundiak bere eraikin nagusien birgaitze energetikoa bultzatzen du**

*Lau proiektu idazteko esleipena egin du, 326.064 eurokoa*

*Helburua da energia kontsumoa gutxienez % 30 murriztea*

Arabako Foru Alundiak bulego nagusiak direnen eta erabilera publikoko beste higiezin batzuen birgaitze energetikoa bultzatuko du, isolamendua hobetuz oro har (fatxadak, teilatuak eta leihoak), klimatizazio sistemak eguneratuz eta energia iturri garbiak sartuz. Helburua da higiezin energia kontsumoa murriztea gutxienez % 30.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur esleitu du Jauregiaren, Samaniego kaleko Foru Ogasunaren eraikinaren eta Probintzia plazan kokatuta dauden Bulego Tekniko "Zahar" eta Bulego Tekniko "Berrien" birgaitze energetikorako proiektuen idazketa. Kontratu horien esleipenaren zenbatekoa 326.064 eurokoa da guztira, eta gauzatzeko epea 60 egunekoa.

Horiei gehitu behar zaie 'Ignacio Aldecoa' Kultura Etxearen birgaitze energetikorako proiektua idazteko kontratua, apirilean esleitu zena, 105.000 euroan.

Esku hartze horiek pixkanaka egingo dira datozen urteetan, Kultura Etxetik hasita, eta epeak aurrekontu baliabideen eta Europako funtsen lorpenaren arabera izango dira. Lehenengo urratsa izango da birgaitze energetikoko bost proiektu horiek idaztea. Proiektu horiek, ingurumen jasangarritasuneko eta irisgarritasuneko irizpidez gain, eraikin bakoitzaren balio arkitektonikoa eta haren ingurunea ere hartuko dituzte kontuan.

Proiektatutako jarduketan helburua da Arabako Foru Aldundiaren jabetzako higiezin horien energia eraginkortasuna hobetzea, gutxienez % 30 aurrezteko energia kontsumoan egungo kontsumoarekin alderatuta. Helburu hori lortzeko, aurreikusten da inguratzaile termikoan eta berokuntza, klimatizazio eta argiztapen sistemetan esku hartu eta kudeaketa digitalizatzeko sistemak ezartzea.

Aldundiaren bost eraikin horien birgaitze prozesua Espainiako Gobernuaren Toki Erakundeentzako Eraikin Publikoen Birgaitzea Sustatzeko Programaren (PIREP) helburuen barruan dago.